



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA**

2.014KO MARTXOAK 6

OHIKO PLENOA

Bertaratuak:

**ALKATEA
ZINEGOTZIAK:
Bertaratuak:**

Maria Jesus Salsamendi Astiazaran

Jokin Uzkudun Goenaga.
Harkaitz Arruti Eizagirre.
Oihane Arzalluz Beobide.
Leire Beristain Mendizabal.
Iñaki Irulegi Apalantza.
Luis Berrondo Lanceta.

Bertaratu gabeak:

Iñor ez.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Errezilgo Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta hamalauko martxoaren seiko hogeita bat ordu eta hamar minutu izanik, Errezilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**LEHENENGO PUNTUA:
2014KO OTSAILAREN 6KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.**

Idazkariak 2014ko otsailaren 6ko akta onartzen den galdetzen du eta aho batez onartzen da.

**BIGARREN PUNTUA:
ERREZILGO UDAL HILERRIAN PANTEOIAK ERAIKITZEKO 3 PARTZELA
ESLEITZEKO BALDINTZA PLEGUEN ONARPENA.**

Idazkariak Errezilgo Udal hilerrian panteoiak eraikitzeiko 3 partzela esleitzeko baldintza pleguen berri ematen du eta literalki zera dio:



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA**

“ERREZILGO UDAL HILERRIAN PANTEOIAK ERAIKITZEKO 3 PARTZELA 75 URTEZ ESLEITZEKO BALDINTZEN PLEGUA, EMAKIDA ADMINISTRAZIOAREN ARAUBIDEAN, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ.

1.-XEDEA

Esleipen honen helburua zera da, 75 urtez Errezilgo Udal Hilerrian hiru partzela ematea panteoiak eraikitzeke. Esleipenean jarriko diren partzelak honekin batera dagoen planoan zenbakiakin adierazita dauden berberak dira, eta hurrengo neurri hauek dituzte:

ZENBAKIA	NEURRIAK
32	2,85X1,05 = 3,00 m ²
33	2,85X1,05 = 3,00 m ²
34	2,85X1,05 = 3,00 m ²

Partzelak lursailean birplanteatuko ditu Errezilgo Udaleko teknikari batek.

2.- EMATEKO EPEA

75 urtez emango da esleipena egiten den egunetik zenbatzen hasita, jabego eskubidea izan ezik eta hirugarrenaren kaltetan izan gabe.

3.- PREZIOA

Lizitazio honen prezioa hurrengo hau da:

ZENBAKI A	NEURRIAK	ZENBATEKOA
32	2,85X1,05 = 3,00 m ²	1.200 €
33	2,85X1,05 = 3,00 m ²	1.200 €
34	2,85X1,05 = 3,00 m ²	1.200 €

4.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Emakidan parte hartzeko eskabideak iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeitamar egun iragan baino lehen aurkeztu beharko dira.



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

5.- ESKATZAILEAREN BETEKIZUNAK.

Emakidan parte hartzeko honako baldintzak bete beharko dira:

1. Hamazortzi urte baino gehiago izatea. Senar-emazteak edo ezkondu gabeko bikoteak izanez gero, nahikoa izango da ezkontide edo bikotekideetako batek adin hori izatea. Dena dela, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denerako izan beharko ditu beteak hamazortzi urteak.
2. Jarduteko gaitasun osoaren jabe izatea eta baldintza orri hauetako ekonomi baldintzetan ageri diren kopuruak ordaintzeko gaitasuna izatea.
3. Ezgaiturik, gaitasungabe edo bateraezintasun egoeran ez egotea, urriaren 30eko 30/2007 Legeak, Herri Administrazioen Kontratuenak, xedatzen duenaren arabera.
4. Famili unitate bakoitzeko eskabide bakarra onartuko da.

6.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO MODUA.

Eskabideak Udalak prestatutako eredu ofizial normalizatuaren arabera izango dira -eredua baldintza orri hauen eranskinean ageri da. Dohainik eskuratu ahal izango dira udal bulegoetan. Eskatzaileak berak eta bakarrik sinatu beharko du eskabidea; senar-emazteak edo ezkondu gabeko bikotea izanez gero, biek sinatu beharko dute.

Betetako eskabidearekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira, derrigorrez:

- 1.- Eskatzailearen nortasun agiriaren fotokopia edo, legeak hala onartzen duen kasuetan, nortasuna ofizialki egiaztatzeko balio duen beste agiri batena. Fotokopiak behar bezala egiaztatuak izango dira.
- 2.- Urriaren 30eko 30/2007 Legean jasotako ezgaitasun, gaitasun gabetasun edo bateraezintasun kasuetako bat ere ez dagokiola aditzera ematen duen zinpeko aitortpena.
- 3.- Betebehar tributarioei dagokienean egunean daudelako agiria. Udalerriko zorrik ez duela Udalak berak egiaztatuko du
- 4.- Emakidan bete beharreko lege, ekonomi eta administrazio baldintzak jasotzen dituzten orri hauek, eta beretatik sortutako betebeharrak, erabat eta inolako eragozpenik gabe onartzen dituela aditzera ematen duen berariazko aitortpena.
- 5.- Jaiotza agiri literala.

Eskabideak Errezilgo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, ezarrita dagoen ordutegian edo, bestela, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazio Guztien Zuzenbide Arauen eta Administrazio Jardunbidearenak, bere 38.4 artikuluan



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

xedatzen dituen moduetako batean; dagokion funtzionarioak eskabideak aurkezteko epearen barruan jarritako data eta zigilua eman beharko ditu eskabideak.

7.- PANTEOIEN GAINEKO ESKUBIDEAK ESLEITZEKO JARDUNBIDEA.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, behin-behineko zerrenda egingo da Udalak eskainitako panteoien gaineko eskubideak eskuratu nahi dituztenen eskabide onartu eta baztertuekin. Zerrenda horiek Udaleko iragarki taulan ikusgai egongo dira hamar lanegunez. Bertan aditzera emango da zein eskabide onartu diren eta zein baztertu, eta zein izan diren baztertzeko arrazoiak. Hamar egun hauen barruan erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira. Epeak lanegunetan kontatuko dira.

Emandako epean erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin-behineko zerrendak berez behin betiko bihurtuko dira. Erreklamaziorik aurkeztuz gero, administrazio izapide egokiak bete ondoren onetsi edo gaitzetsiko dira, behin betiko zerrendak onartzen dituen ebazpen batean. Behin betiko zerrendak ere Udaleko iragarki taulan ikusgai jarriko dira.

8.- PANTEOIEN GAINEKO ESKUBIDEEN EMAKIDAK ESLEITZEKO JARDUNBIDEA.

Udaleko iragarki taulan onartutakoen behin betiko zerrendak ikusgai jarri eta handik bi lanegunera hasiko da zozketa. Esleipena zozketa bidez egingo da. Talde bakoitzean eskaera bakarra aurkezten bada, berak zuzenean nahi duen panteoia aukeratuko du. Taldean eskaera bat baino gehiago badaude, zozketa egingo da. Eta zozketa egiterakoan, esleipendun bakoitzak bere panteoia aukeratuko du.

Zozketa Udaletxean egingo da, alkatearen edo berak izendatutako udalbatzarkidearen aurrean, udal idazkaria edo egintzaren fede emateko eginkizuna izendatzen zaion funtzionarioa ere bertan dela.

Zozketa egiterakoan lehentasuna izango dute hurrenez-hurren:

1.- Jatorriz Errezildarrak izan eta gainera azkeneko 5 urteetan Errezilen erroldaturik daudenak.

2.- Jatorriz Errezildarrak izan edo azkeneko 5 urteetan Errezilen erroldaturik daudenak.

3.- Gainontzeko guztiak.

Zozketan onuradun izan ez diren eskatzaileak itxaron zerrendan sartuko dira automatikoki, eskaera egin zuteneko itxaron-zerrendan hain zuzen ere.

Itxaron-zerrendan daudenak, beti ere erregistroko ordena errespetatuta, panteoi hutsak geratzen direnean, eskubidea izango dute horietako baten esleipendun izateko.



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

Itxaron zerrendak bi urteko balioa izango dute eta panteoi hutsak baleude, erregistroko ordenaren arabera beteko dira.

9.- ESLEIPENAREN PREZIOA

Esleipenaren prezioa Udal Diruzaintzan ingresatu beharko da, dirua udaletxearen kontuan sartuz, hogeita hamar (30) eguneko epean esleipenaren jakinarazpena egiten den egunean zenbatzen hasita, eta diru-sarrera hori ezinbesteko baldintza izango da Diru-sarrera ez bada adierazitako epearen barruan egiten, eskubidea iraungitzat hartuko da. Eta ordainketa egin eta hilabeteko epean, Udala eta esleipendunaren arteko hitzarmena sinatuko da.

Esleipendunek Errezilgo Hilerriko Araubidean dauden xedapen guzti-guztiak zein ezar daitekeen udalaren bestelako araudian daudenak bete beharko dituzte, bai eta aipatu araudian sar litezkeen aldaketak eta gai honi buruz onar litezkeen beste batzuk ere.

10.- KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio-mahaiaren osaketa hurrengo hau izango da:

Presidentea: Udal Batzaren Alkatea edo berak eskuordetzen duen Zinegotzia.

Bokalak: Udaleko partidu bakoitzeko zinegotzi bana.

Idazkaria: Udal Batzarena edo berak eskuordetzen duena.

11.- PANTEOIEN GAINEKO ESKUBIDEAREN GAINEKO ESKUBIDEAREN EMAKIDA ESLEITZEN ZAIONAREN ESKUBIDEAK.

Panteoien gaineko eskubideek honako eskubideez baliatzeko ahalmena ematen diete esleipendunei:

Panteoia gehienez hurrengo 75 urteetan erabiltzea. Bera, bere familiakoak, bere lagunak edo karitateagatik onartzen dituenak lurperatzeko erabili ahal du.

12.- HERRI JABETZAREN GAINEKO EMAKIDAK DIRELA ETA ESLEITUTAKO PANTEOIEN GAINEKO ESKUBIDEEN IRAUPENA.

Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiko 79. artikuluan xedatutakoarekin bat, esleipenak 75 urte iraungo du, gehienez ere, erraunts biltegi zatiaren gaineko eskubidea egiaztatzen duen titulua ematen den egunetik, eta ezin izango da gehiago luzatu; epe horretan emakidan utzitako panteoien gaineko eskubideak erabili ahal izango dira.

Emakidaren epea amaituta, erregistroko jabeari erraunts biltegiaren zatiko hondakinak hezurtegira eramateko eskatuko zaio. Agindutakoa bete ezean, Udalak egingo du, jabearen ordeaz eta kontura.



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

Panteoiak emakidaren epea amaitu baino lehen itzul dakizkioke Udalari, Ordenantzan jasotako iraungipen kasuetan. Emakida amaituta, erraunts biltegi zatietan egindako obra guztiak Udalaren eskuetan geldituko dira.

13.- HERRI JABETZAREN GAINEKO EMAKIDAK DIRELA ETA ESLEITUTAKO PANTEOIEN GAINEKO ESKUBIDEEN IRAUNGIPENA.

Udalak esleitutako panteoien gaineko eskubideak honako arrazoi hauengatik bakarrik jo ditzake iraungitzat:

1. Hilerria aurri egoeran badago. Aurri egoera honek eta ondoriozko iraungipenak dagokion administrazio espediente bideratzea eskatuko du.

2. Panteoia abandonatua badago. Abandonatutzat hartuko da titularra hil eta eskubidearen titular berriak urtebeteko epean bere aldeko transmisioa egin dadin eskatzen ez badu.

3. Goiko paragrafoan adierazitako transmisioa egin dadila eskatuta ere, panteoien egoera eskasean badago eta Udalak adierazitako epean, egoera egokian jartzen ez bada.

4. Kontzesioari ezarritako epea bukatu, eta hala behar izanez gero, bi hilabeteko epean hura luzatzea eskatu ez badu.

5. Dagokion Zerga Ordenantzan ezarritako tasak ez badira ordaintzen, edota kanona, bere kasuan, ez bada ordaintzen.

6. Titularrak edo oinordekoek eskubide horri uko egiten badio.

7. Kontzesioa utzi edo hilobien mantenimenduan utzikeria izan dela ematen badu. Aurrekotzat hartuko da itxuraz hilobien ez erabiltzea edo eta honen mantenimendurako gutxieneko lanak ez egitea. Arrazoi honegatik, lehengoratzeko dagokion administrazio espediente tramitatuko da.

8. Panteoia erabiltzeko eskubidea, araudi honetan agertzen denaren kontra erabiltzen bada.

9. Panteoia erabiltzeko eskubidea, araudi honek onartzen ez duen bati ematen zaionean.

10. Jabea hil denetik hamar urte iragan direlako inolako onuradun edo oinordekok dagokion eskubidea eskatu gabe.

Iraungipeneko administrazio espediente bideratu ondoren, iraungipenerako arrazoirik dagoela joz gero, Udalari itzuliko zaizkio hilobiaren gaineko eskubideak. Horrela, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuko 70. artikuluan jasotakoa –hau da, Administrazioak edozein garaitan berreskura dezakeela herri jabetzako bere ondasunen edukitzea– betetzen da.

14.- ZEHAPEN ARAUBIDEA: HUTSAK ETA ZEHAPENAK.

Gai honetako zehapen araubide jakinik ez dagoenez, administrazio zehapen araubide orokorra indarrean egon eta ezgarri izango da.

15.- EMAKIDAREN TITULARRA DENAREN ESKUBIDEAK



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

Emakidaren titularrak hilobiratzea, panteoitik ateratzea eta panteoian trasladoak egitea eskatu ahal izango ditu Udalak horretarako eskatzen duen tramitearen eta indarreko araudiaren arabera ezarri beharreko tarifen kalterik gabe.

Horrez gain, Errezilgo Udal Hilerriaren barne-araudiaren arabera dagozkion eskubideak izango ditu.

16.- EMAKIDAREN TITULARRAREN BETEBEHARRAK

Plegu honetan ezarritako beste batzuen eta Udal Hilerriaren barne-araudiaren kalterik gabe, emakida jaso duenak derrigorrez hurrengo hauek bete beharko ditu:

a) Panteoia bi urteko epean eraikitzea, kontratua sinatzen denetik hasita, betiere gordez Barne-Araudian ezarritakoa. Debekatuta dago beren-beregi dagokion lizentzia edo baimena ez duen edozer eraikitzea.

b) Dagokion araudian eraikuntzarekin edo kontserbazioarekin zerikusirik duten gaietara buruz ezarritako arauak betetzea, Errezilgo OO.AA-k barne.

c) Emakidaren epea amaitzen denean, abandonatzea eta Udalaren esku uztea, bai partzela bera, bai horren ondorioz egindako eraikuntzak, eskubidea iraungitzeak berez ekarriko ez duela titularrak konpentsazio edo kalte ordainik jasotzea.

17.- PANTEOIAREN ERAIKUNTZA ETA KONTSERBAZIOARAKO BALDINTZAK ETA BETEBEHARRAK

1.- Panteoiak ehorzketa zerbitzuak arautzen dituen ordenantzaren 18. Artikuluaren arabera hiru gorpu hartzeko adina leku izango dute.

2.- Udalak, panteoien berdintasuna gordetze aldera, zehaztu ahal izango du kasu bakoitzean zer eraikuntza mota egingo den.

3.- Esleitzen diren partzela guztien eraikuntza obrak batera egingo dira, udal baimen bakarria emango delarik hauek aldi batean eraiki ahal izateko.

Panteoien eraikuntza eskubide funerarioaren titularraren kontura egingo da. Horretarako eta hori baino lehen, obretarako udal lizentziaren eskabidea aurkeztu beharko da, eta horrekin batera, egin nahi den panteoiaren plano edo argazkien ale bana ere bai.

Obretarako lizentzian aipaturiko hilobien edo panteoien edukiera zein den zehaztuko da. Behin hori eginda, lehenago ezarritako eskubide-tasak ordainduta eta obrak hasi baino lehen, interesatuak udal teknikariei eskatuko die alineazioak eta sestrak zein diren adierazteko.

Lanak behin amaituta eta Udal Teknikariek horiek ikuskatuta, lurperatzeak egiteko baimena emango zaie.



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

Obra mota guztiek, panteoiak konpontzeko direnek barne, jaso beharko dituzte bai onarpena, bai udalaren lizentzia.

Behin obrak amaituta, eraikitzaileek edo bestela, emakidadunek lurrak, harriak, hondakinak eta orokorrean, erabilitako materialen edozein hondar kendu beharko dituzte. Horrez gain, konpondu beharko dute ibilgailuz edo bestelako elementuz kalean, instalazioetan, eraikuntzetan eta abarretan eragindako kalte guztiak.

Titularrek edo horretarako baimena duten pertsonak panteoiak zaindu eta apaindu ahal izango dituzte, baina horretarako, udalaren baimena beharko dute.

Lore edo balio ez duten bestelako gauzen hondarrak Hilerriko langileek adierazten duten tokian utzi beharko dira.

18.- EZARRI BEHARREKO ARAUDIA

Plegu honek zehazten ez dituen kasuetarako Errezilgo Hilerriko barne araubidean, tokiko erregimen-araudian eta ezarri daitezkeen gainontzeko xedapen orokorretan xedatutakoa ezarriko da”.

Bozketa egin eta Batzordearen diktamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Oihane Arzalluz Beobide, Harkaitz Arruti Eizagirre, Iñaki Irulegi Apalantza, Leire Beristain Mendizabal eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, Errezilgo Udal hilerrian panteoiak eraikitzeko 3 partzela esleitzeko baldintza pleguak aho batez onartzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA:

ESKUZ-ESKU AUZOLANA ELKARTEAK 2013 URTEARI BURUZ AURKEZTURIKO KONTUEN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA ETA ERREZILGO UDALA ETA ESKUZ-ESKU AUZOLANA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA BESTE URTEBETERAKO LUZATZEA ONARTZEA.

Idazkariak Eskuz-esku auzolala elkarteak 2013 urteari buruz izandako kontuen likidazioaren berri ematen du. Hona desglosea:

Errezilgo Udalak **Ekainak 14ean** San Antonio jaietarako 3000€ ingresatu zituen eta egun bertan atera ziren jaietako hainbat ordainketa egiteko. Honako ordainketa hauek egin ziren.



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA**

- Trikitilariak: 300.00€
- Gorriti: 500.00€
- Puzgarriak: 600.00€
- Ezten giro: 500.00€
- Poteoa: 300.00€
- Obaneuke: 800.00€

- **Ekainak 20an** 265.38€ elkartearen aseguruaren ordainketa egin da.
- **Ekainak 25ean** 1247.36€ jaietan bildutakoa ingresatu zen.
- **Uztailak 5ean** 1340€ atera dira jaietako ordainketak egiteko. (Kamixetak)
- **Azaroak 8an**, Errezilgo Udalak 3500€ ingresatu ditu San Martin jaietako ordainketak egin ahal izateko eta egun berean kantitate guztia atera da.

- Dantzadi: 1000.00€
- Muserako txapelak: 120.00€
- Poteoa: 500.00€
- Afaria Borondegini:120.00€
- Gugaz: 800.00€
- DJ urki: 120.00€
- Azokako postuak:220.00€
- Herri kirolak: 618.00€

- **Abenduak 8an**, 500€ atera dira San Antonio jaietako ordainketa bat egiteko. (Gaztetandik- dantza txapelketa)

Bestalde, 2012ko uztailaren 26an Errezilgo Udala eta Eskuz-Esku auzolana elkartearen artean udalerriko zenbait ekintza aurrera eramateko hitzarmena sinatu zen, hitzarmenaren baldintzetako bat hitzarmena urtero berritzea delarik.

Udalbatzak, aho batez, eta Batzordearen proposamena kontuan izan ondoren, zera erabaki du:

1.- Eskuz-esku auzolana elkarteak 2013 urteari buruz aurkezturiko kontuak onartzea.

2.- Errezilgo Udala eta eskuz-esku elkartearen arteko hitzarmena beste urtebeterako luzatzea onartzea, hau da, 2014ko abenduaren 31 arte.

Beraz, batetik, Eskuz-esku auzolana elkarteak 2013 urteari buruz aurkezturiko kontuak eta bestetik, Errezilgo Udala eta eskuz-esku elkartearen arteko hitzarmena beste urtebeterako luzatzea aho batez onartzen da.

**LAUGARREN PUNTUA:
ZENBAIT MOZIOEN ONARPENA.**



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

1.- Sakabanaketa eta espetxe politikarekin amaitzeko garaia dala eta, 2014ko otsailaren 12an BILDUren izenean Maria Jesus Salsamendi Astiazaran andreak aurkezturiko mozioak literalki zera dio:

“ Arkaitz Bellon preso elorriotar gaztearen heriotzaren berri lazgarria jaso genuen atzo. Gaur, egoeraren larritasunak eta urgentziak hala aginduta, Udal honetatik zera adierazi nahi dugu:

Lehenik eta behin, gure elkartasun osoa adierazi nahi diegu Arkaitz Bellonen senide eta lagunei. Une lazgarri hauetan, gure babes eta berotasuna adierazi nahi dizkiegu.

Bere herritik mila kilometrotara hil da Arkaitz Bellon, Puerto I-eko espetxean, zigorraren 2/3 beteta izan arren. Beraz, kalean egon behar zen. Mila kilometro hauen atzean dagoen errealitateari erreparatzen badiogu, giza eskubideen urraketa eta mendekuan oinarritutako espetxe politika gizagabe eta krudela da gaur egun protagonista nagusia, eta Arkaitzen heriotzaren erantzule zuzena.

Egoera hau beti izan baldin bada bidegabea, berau mantentzea erabat zentzugabea eta onartezina bihurtzen da gure herrian zabaldu den errealitate berrian. Arkaitzi gertatutakoa, edonori edonoz gerta dakioke eta ez du gehiago gertatu behar.

Gauzak honela, salbuespeneko espetxe politika honekin eta sakabanaketarekin amaitzea eskatzen dugu, herri honetan gehiengoak aldarrikatzen duenarekin bat eginez. Sakabanaketa eta espetxe politika honekin amaitzeko garaia da. Aski da esateko unea da.

Horretarako, eskaera hau luzatzeaz batera, inoiz baino beharrezkoagoa ikusten dugu eskubide guztien alde egiten dugun indarrek bat egitea eta kalera ateratzea, sufrimenduaren soka luze honekin lehenbailehen amaitzeko.

Ondorioz, “Espetxe politika honi ez, sakabanaketa amaitu” lelopean, hainbat eragile politiko, sindikal eta sozialek deitutako mobilizazioetan parte hartzera gonbidatzen ditugu herritarrak.

Egun indarrean dagoen espetxe politika eta sakabanaketarekin amaitzeko gu guztiok beste urrats bat egitera goaz eta horretarako gonbidapena luzatzen dizuegu”.

Bozketa egin eta Batzordearen diktamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkuadun Goenaga, Oihane Arzalluz Beobide, Harkaitz Arruti Eizagirre, Iñaki Irulegi Apalantza, Leire Beristain Mendizabal eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, BILDUren Maria Jesus Salsamendi Astiazaran andreak aurkezturiko mozioa aho batez onartzen da.



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

2.- Martxoaren 8ko emakumeen egunaren inguruan, 2014ko otsailaren 20an BILDUren izenean Maria Jesus Salsamendi Astiazaran andereak aurkezturiko mozioak literalki zera dio:

“ Martxoaren 8a hurbiltzen ari zaigu urtero bezala, Emakumeon Eguna. Urteetako borroka gogoratzeko eta ospatzeko aukera ematen digu baina, batez ere, emakumeon egoeraren inguruko hausnarketak partekatu eta balantzea egiteko aukera ona izaten da.

Krisiaren itzalpean harro dabilzkigu kapitala eta patriarkatua, lotsarik gabe, mozorroa kenduta. Eta emakumeok orain arte lortutako askatasun eta eskubideak galtzen ari gara, atzeraka goaz. Inboluzio une batean gaude. Historia lineala ez denez, ez goaz beti aurrera; baina historia idatzita ez dagoenez, ezer ez da ezinbestekoa, aldaezina. Inboluzio une batean bagaude ere, gure esku dago borroka feminista indartu eta, haizea alde ez izan arren, egoera aldatzea.

Emakumeon egungo egoera hitz gutxitan laburbildu beharko bagenu, honela jasoko genuke: lan-merkatuan gero eta biluziago, zaintzaren motxilan gero eta harri gehiago, umetokian bandera espainola ezarrita (Estatuaren lurralde bihurtuta) eta gorputza indarkeria sexistak moretuta. Hori guztia, emakumeon eta familia-eredu heterosexualaren hautua egiten ez dutenen kontrako eraso ideologikoarekin lagunduta: gaiztoak, gaixoak, sorginak eta eroak omen.

Lan-merkatuan gero eta biluziago gaude emakumeok. Botere ekonomikoaren mesedetan arautzen ari da lan-mundua, lanerako gorputza, burua eta eskuak besterik ez ditugunok babesik gabe utziz. Haurdun dauden emakumeak kaleratzeko aukera legeztatu da, lan-baldintzak okertzen ari dira orokorrean eta emakumeak nagusi diren hirugarren sektorean bereziki, eta sektore feminizatuetan behin-behinekotasuna, ziurgabetasuna eta prekarietatea dira nagusi. Horrekin batera, lan-merkatutik kanpo uzten ditugun etxeko lanak eta zaintza-lanak emakumeen bizkar erortzen jarraitzen dute. Ez hori bakarrik; erakunde publikoak, pertsonen zaintza luxua dela baloratuta, horretarako dauden zerbitzuak eta laguntzak murrizten ari dira eta, ordainetan, emakumeon zaintzaren motxila kargatzen. Biluzik eta gero eta motxila handiagoarekin gabilta.

Biluzik gabiltzan arren, gure gorputza ere ez digute guretzat utzi nahi. Gure gorputza gurea dala ukatu nahi digute. Gure umetokia Estatu-arazoa dela diote baina gaude beraientzat arazoa, azken finean, emakumeak garela. Abortatzeko eskubidea ukatzeko Espainiako Gobernuak aurkeztu duen kontrarreformarekin, duela 40 urte oihukatutako aldarriak berriz etorri zaizkigu umetokietatik eztarrietara. Posible da lan-merkatuak ume gehiago nahi izatea langabezia-poltsak handitzeko, langabeziaren mehatxupean langileak otzantzeko, beldurra areagotzeko. Baina, batez ere, motibazio ideologiko ultrari erantzuten dio; emakumeok ama-emazte izan behar dugun ideologiari, hain zuzen.



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

Abortuaren kontrarreformarekin batera, emakumeon askatasunaren eta aniztasunaren kontrako eraso gehiago datoz, emakumea emazte-ama fin, otzan eta menpeko bihurtzeko. Patriarkatuaren zutabea den familia-eredu tradizionala edo heteropatriarkala indartzeko neurriak dira. Ugalketa lagundurako eskubidea bikote heterosexualentzat soilik, haurdun geratzen den emakume oro haurra izatera behartu, norberaren gorputza eta desioak ezagutu eta garatzeko hezkuntza afektibo-sexuala murriztu edo LOMCErekin guztiz ezabatu, elizgizon esanguratsuen ahotik sexu bereko pertsonen arteko harremanak gaixotasun gisa aurkeztu nahi dizkigute, eta indarkeria sexistaren dimentsioa ezkutatu, garrantzia kenduz, datuak makilatuz (indarkeria sexista gisa kontabilizatuko direlako soilik eraildako emakumeak eta 24 orduetik gora ospitaleratutakoak) eta batzuetan justifikatuz. Erakunde publikoek eta hedabideek horretan duten ardura ez da txikia.

Emakume eta gizon askeak, buru- eta gorputz-jabeak izateko heziketa zeinen garrantzitsua ondo dakitenez, LOMCErekin hezkidetzaren bidean egindako lana ezabatu nahi du Espainiako Gobernuak. Berdintasunaren eta hezkidetzaren alde egindako lana alde batera utzi eta erlijio katolikoa jarri nahi du erdigunean. Elizak eta Estatuak eskua emanda sartu nahi dute eskoletan, haurren gogoak kolonizatzeko.

Hedabideetan ere atzerakada garrantzitsua atzematen dugu eta bereziki larria iruditzen zaigu bertako hedabide publikoetan gertatzen ari dena. Aktualitateko arazoengatik inguruko eztabaida eta tertuliatan emakumeon presentzia anekdotikoa da. Ez dugu ahotsik. Ikusezinak gara. Horretaz gain, hedabideetako edukiek eta publizitateak estereotipo, rol eta balio sexistak elikatzen eta indartzen dituzte. Gaur egun, esan dezakegu, hedabideak estereotipoen habia direla.

Egoeraren irakurketak alarma guztiak piztera garamatza. Feministok urteetan aldarrikatutako eta borrokatutako helmuga gero eta urrunago dago eta inboluzio lazgarria sufritzen ari gara. Emakumeok subjektu politiko gisa, eskubide osoko herritar gisa onartzetik gero eta urrunago gaude. Egungo krisia emakumeon askatasunen eta berdintasunaren krisia ere bada. Ez orain arte helburuok lortu genituelako baina bai atzerapauso nabarmenak ematen ari garelako. Ez halabeharrez, ordea; botere politikoek eta ekonomikoek norabide horretan eraman nahi gaituztelako baizik. Emakumeok berriro ere sistema heretropatriarkalaren kaiolara lotu nahi gaituzte.

Egoeraren irakurketa gordinak etsipenean erortzeko baino, egoeraz jabetu eta erantzuna pizteko balio izatea nahiko genuke. Betaurreko eta lupa moreak jantzi, elkarri eskua eman eta atzerapausoak identifikatu eta hauei aurre egiteko prestatu behar dugu. Eta gure bidea egin, guk nahi duguna izateko, euskaldunak, askeak, zernahi. Jostun onen moduan, jos ditzagun emakumeon arteko sare sendoak. Eta zabal dezagun gure sarea eta lana esparru guztietan, esparru sozio-ekonomikoan, kultur arloan, esparru politikoan, erakundeetan. Eta elika ditzagun aliantzak eragile sozial, politiko eta sindikalekin, Euskal Herri euskalduna eta feminista ezkerretik eraikitzeko.

Gaur, 2014ko martxoaren 8an, EHBilduk Euskal Herri feministaren helburua bere egin eta borroka feminista indartzeko konpromisoa adierazten du. Gure zeregina da



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

mugimendu feministarekin batera orain arteko borroken lekukoa hartu eta borroka horiei eustea, gure zeregina da erdi lo genituen borrokak berpiztea, lortuzat genituen eskubideak uste baino errazago gal ditzakegulako, eta gure zeregina da mugimendu feministak irekitzen duen bidea jarraitzea, pausoz pauso, orpoz orpo.

Emakume eta gizon askeen Euskal Herria helburu, bide horretan lan egingo dugu erakunde publikoetan, elkarteetan, komunikabideetan eta kalean. Jakitun gara jendartea eraldatzeak gure buruak ere eraldatzea esan nahi duela eta, jakitun gara, barne-mailan gauza asko ditugula oraindik lantzeko. Ez gara jendartetik isolatutako erakunde bat eta guk ere ikasi eta landu beharreko alderdi asko ditugu oraindik. Bada, kanpora begira egingo dugun lanaz gain, etxe barruan ere eraldaketa feministaren bidean lan egiteko konpromisoa hartzen dugu”.

Bozketa egin eta Batzordearen diktamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Oihane Arzalluz Beobide, Harkaitz Arruti Eizagirre , Iñaki Irulegi Apalantza, Leire Beristain Mendizabal eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, BILDUren Maria Jesus Salsamendi Astiazaran andereak aurkezturiko mozioa aho batez onartzen da.

BOSTGARREN PUNTUA: ORDAINAGIRIEN ONARPENA.

Ez dago ordainagiririk.

SEIGARREN PUNTUA: ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.

Alkateak azkeneko Plenotik gaurko data arte emandako Dekretuen zerrenda jakinarazten du, hau da, 2014ko urtarrilaren 29tik (13/2014 Alkatetza Ebazpena) 2014ko otsailaren 21era (28/2014 Alkatetza Ebazpena) bitarteko Dekretuak.

ZAZPIGARREN PUNTUA: GALDERAK ETA ERREGUAK.

1.- Idazkariak IAEren inguruan zenbait azalpen ematen ditu. Gai honen inguruan hitzegin ondoren, Udalak zerga honen inguruko erreziboak aztertu eta Domusarekin hitzegitea erabaki du.




**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA**

2.- Idazkariak 2013ko likidazioa ia amaitzean daukela jakinerazten du eta trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergan zenbait zergadunek Udalarekiko dextenteko zorrak dituztela jakinerazten du. Gaia aztertu ondoren, Udalak zergadun hauei zergak ordaintzeko dituztela adieaziaz idatziak bidaltzea erabaki du.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko hogeita bi ordu eta hamar minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut

H. Lab



Maria Arribas